

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Hiltzera goaz.
Fiachras.
Bonberenea Ekintzak.
Iraupena: 34'06".
10 euro.

Galtzaileen azken nota eta zurrutadak

BERGARA, LAZKAO ETA LEGAZPI artean banatutako musikari hauek luzaroan punk-rockean aritu ondoren haize freskoa ekarri zioten Euskal Herriko musika eszenari, eta bat-batekotasuna eta marinel kutsuko kanta malenkoniatsuak uztartu zituzten estreinako lanean. Euren erritmoari fidel, ez zuten kontzertu askorik egin, baina jarraitzaile dezente batu zituzten. Orain bigarren lanarekin datoz, eta metaforaz josita badator ere, ezinegona eta amorrazioa

dario. Are gehiago, taldea handitu egin dute, eta eskusoinu, hammond, slide eta soka instrumentuekin lagunduta, countrya eta folka maisuki landu dituzte, euren ezaugarri garrantzitsua den galtzailearen malenkoniak bustita. Bada baita tex-mex ukiturik, eta Irlanda zein Argentinako oihartzunik... Agian serioegi jarri badira ere, emaitza oso dotorea eta sinesgarria da.

www.myspace.com/myspacefiachras

Haritz Artola eta Aitor Aldanondo - Fiachras

«Jendeari gehiago ardura dio kokaina gramoaren prezioak, hamar urtez etxea ezin erosi egoteak baino»

Aspalditik gordetako amorrua atera duzue orain?

Haritz Artola: Bai, 35 urtetan pilatutakoa jada kanpora atera behar izan dugu, bestela eztanda egingo genukeelako. Ezartzen dizkiguten neurri ekonomikoek eta jendearen pasotismoak erretzen gaituzte batez ere. Jendeari gehiago ardura dio kokaina gramoaren prezioak, hamar urtetan etxea ezin erosi egoteak baino, eta hori beldurgarria da. Hiltzera edo erailtzera goaz!

Zuen burua korrontetik kanpo ikusten duzue?

H.A.: Bai, eta gustuko dugu hori gainera. Orain Bizardunak-en arrakastarekin modan jartzen hasi da irlandar folka deritzona eta ardura-zen hasiak gara. Tarteka Bizardunak taldearekin konparatu izan gaituzte, baina Aitor eta biok



Bizardunak-eko kide ere bagara eta Fiachras zaharragoa da. Guk nahia- go dugu lasai ibili, presiorik gabe. Modan jartzen bada, hurrengo diskoan beste estiloren bat landuko dugu, jakina, punk-rocka ez dena; agian rap-a.

Lehenengo diskoa bat-batekoa izan zen; eta oraingoa, berriz, oso landua.

Aitor Aldanondo: Bai. Brigada Criminal bukatu eta berehala kantak idazten hasi eta grabatzera

sartu ginen, eta kanta batzuk borobildu gabe daude. Oraingoan, baina, elkar ezagutzen dugu, ideiak garbiago ditugu eta hammonda, soka instrumentuak eta moldaketak sartzeko aukera izan dugu.

Bizardunak askoz ganberroagoa da eta zuen kante- malenkonia kutsu askoz handiagoa dute.

H.A.: Bai, egia da. Jendeak gustuko du nostalgia eta malenkonia hondar hori: orain dela 200 urte nola bizi ginen; edo zer sentitzen den marinel izanda. Gaur egun abentura askorik egin ezin dugunez, behintzat kanten bidez irudika ditzakegu.

A.A.: Nahiz eta jantzia halakoa edo bestelakoa izan, garrantzitsuena barruko doinu itsaskorra da. Eta malenkoniari dagokionez, nik betidanik maite izan dut Stiv Batorsen ukitu erdi negarti erdi gordina. ■